



Bertsozale Elkartearen Berripapera

	ESPAÑA
	FRANKEO ITUNDUA
	FRANQUEO CONCERTADO
	ZK/NRO 37000126

Bertsozalea

www.bertsozale.eus

2016ko APIRILA - 173. zenbakia

Sardiniako eta Kurdistango inprobisatzaileak izango ditugu apirilean Euskal Herrian

Bertsolariekin batera, kantuan ariko dira cantadoriak eta dengbejak apirilaren 16tik 23ra; Euskal Herri osoan zehar izango dira saioak. Europa bat-batean egitasmoaren baitan egingo dira eta uztailean gauzatuko diren topaketari begira jarriko gaituzte.

Udaberri honetan, nazioarteko kantu inprobisatzaileak izango ditugu gure artean *Europa bat-batean* egitasmoaren eskutik. Apirilaren 16an hasi eta 23ra arte, Euskal Herriko hainbat lekutan ariko dira kantuan Sardiniako, Kurdistango eta hemengo inprobisatzaileak: cantadoriak, dengbejak eta bertsolariak, alegia. Kurdistango ordezkariak ekartzeko tramiteak bereziki zailak izaten ari dira.

Bilbo, Hernani, Donostia, Iruñea, Markina-Xemein, Uztaritze eta Aramaio bisitatuko dituzte. Emanaldietan adierazpide bakoitzeko bina inprobisatzaileak hartuko dute parte, adierazpide bakoitzak eskatzen dituen gai-jartzaile, musikari eta ahots laguntzaileekin batera. Gainera, atzerriko hizkuntza darabilten inprobisatzaileen jarduna jarraitzeko, bat-bateko itzulpena eskainiko da emanaldietan.

Saio hauek *Europa bat-batean* egitasmoaren bigarren geltokia dira. Proiektua Mintzola Ahozko Lantegiak eraman du aurrera, Donostia 2016 Europako Kultur Hiriburuarekin batera eta tokian tokiko erakunde eta eragileekin elkarlanean. Udazkenean, Leonen eta Bartzelonan egin ziren lehen saioak; orain, Euskal Herrian zehar egingo dira; eta azkenik, uztailean, egitasmoak goia joko du Donostian astebetetz egingo den topaketarekin.

Uztailean, jardunaldi akademikoak eta emanaldiak
Uztailaren 11tik 16ra Kantu Inprobisatuaren Nazioarteko Topaketa

izango da Donostian. Goizean jardunaldi akademikoak izango dira eta arratsaldean emanaldiak hiriburuko hainbat lekutan. Azken egunean, topaketa biribiltzeko jai handia egingo da Kursaalaren.

Jardunaldi akademikoak Euskal Herriko Unibertsitatearen Udako Ikastaroen baitan eskainiko dira. Hirugarren urtez egongo da Mintzola Miramar Jauregiko ikastaroetan eta, oraingoan, astebete oso iraupena izango du hitzaldi sortak. Mundu guztiko ordezkariak bilduko dira, jorratuko diren gaietan aditu entzutetsuak direnak. Egun bakoitzak hari jakin bati jarraituko dio: astelehenean, kantu inprobisatu ezberdinen inguruko xehetasunak azalduko dituzte hizlariek; asteartean, adierazpideen belaunaldiz belaunaldiko transmisioaz hitz egingo dute; asteazkenean, generoa izango da ardatz; ostegunean, Xenpelar Dokumentazio Zentroaren eskutik Kulturarte Mapa egitasmoa aurkeztuko da; eta ostiralean, hizkuntza gutxituen inguruan ariko dira parte-hartzaileak.

Jardunaldiotan parte hartzeko uztailean 6ra arte egongo da zabalik matrikulazioa, EHUko Uda Ikastaroen webgunean. Egun guztietan parte hartu nahi duten interesdunek 80 euroan izango dute matrikula eta egun bakarrera edo batzuetara joan nahi dutenek, 25 euroan eguneko.

Informazio gehiago, www.europabatbatean.eus eta www.mintzola.eus webguneetan.



**AMETS
ARZALLUS ANTIA**
Biriatu, 2016-III-6

Gaia: Bidasoari begira jarria zaude. Ba al da herririk Aturririk Ebrora?

Doinua: Gogoan daukat ez du aspaldi

Zenbat istori ikusi dudan
Bidasoaren ertzetan
auto berdeak batzutan eta
auto urdinak bertzetan.
Argi gorriak eta kontrolak
Bidasoan iluntzetan
baina esperantza ere hartzen dut
argien beldur horretan
ez baldin balitz ezer gertatzen
ez ziren egongo bertan (bis)

Hamaika bihotz jauzika hasi da
handik hona pasatzean
ta ihesean Bidasoari
zeharka begiratzean.
Gure herriko istori latzak
gordeak daude atzean
ai Bidasoa sortzen bazara
mendien negar antzean
noizbait irrifar egingo duzu
itsasoraino heltzean (bis)

Ai Bidasoa mendien negar
ta gure haurren arnasa
Nafarroatik Lapurdiraino
Gipuzko ertzeko traza.
Erreka baten guzia biltzen
nahiz eta ez den erraza
nahiz ta muga bat hor jarri zuten
ta hori ez den jolasa
muga uretan desagertzen da
zenbat ta gehiago pasa (bis)

Martxan da Bizkaiko Bertsolari Txapelketa 2016

Apirilaren 10ean abiatu zen Bizkaiko Bertsolari Txapelketa. Formatu berria du aurtengo txapelketak: maiatzaren 22ra bitartean udabarriko fasea jokatu da, eta horretatik sailkatutakoek hartuko dute parte udagoieneko fasean

Formatu berriarekin dator aurtengo Bizkaiko Bertsolari Txapelketa. Orain arte, eskualdeetako txapelketak egiten ziren udaberrian, eta horietatik sailkatutakoek osatzen zuten Bizkaiko Txapelketarako bertsolarien zerrenda.

Iaz hausnarketa urtea izan zen Bizkaiko Bertsozale Elkartearen, eta horren ondorioa da txapelketa eredu berria. Oraingoan, bertsolari guztiak, inoiz finalista izandakoak salbu, hasieratik lehiatu beharko dute, egokitzen zaien eskualdean eta egokitzen zaien bertsolariekin. Hala, fase bat gehituko zaio Bizkaiko Txapelketari, udabarriko fasea, eta eskualdeek, berriz, txapelketatik at dagoen aparteko proiektuari heldu diote, *Zortzi Puntutan*.

Udabarriko fasetik sailkatuko dira bertsolariak udagoieneko fasea

eta horiei batuko zaizkie inoiz finalista izan diren parte-hartzaileak.

Bederatzi saio osatuko dute udabarriko fasea. Udagoienekoan, bost saio izango dituzte kanporaketek eta hiru finalurrekoek. Oro har, sei bertsolari ariko dira saio bakoitzean eta zortzi izango dira finalean ariko direnak.

Txapelketaren formatuan gauzatutako aldaketarekin bertsogintzan jauzia ematea da helburua. Izan ere, bertsolariek hasieratik beste bertsolariekin eta plaza desberdinetan kantatzeko aukera izango dute.

Bizkaiko Bertsolari Txapelketaren inguruko informazio osoa www.bertsozale.eus/bizkaikotxapelketa webgunean aurkituko duzue

Data	Herria	Ordua	Lekua
Apirilak 10, Domeka	Berriz	17:30	Kultur Etxea
Apirilak 17, Domeka	Bermeo	18:00	Kafe Antzokia
Apirilak 23, Zapatua	Erandio	17:30	Josu Murueta Kultur Etxea (Astrabudua)
Apirilak 24, Domeka	Ondarroa	17:30	Beikozini Aretoa
Apirilak 30, Zapatua	Derio	17:30	Gurea Aretoa
Maiatzak 7, Zapatua	Gueñes	17:30	Sodupeko Kultur Etxearen Areto Nagusia
Maiatzak 8, Domeka	Orozko	17:30	Donibane Aretoa
Maiatzak 14, Zapatua	Arrigorriaga	17:30	Lonbo Aretoa
Maiatzak 22, Domeka	Getxo	17:30	Fadura Kiroldegia

Oholtzapetik ekimena jarri dute martxan Araban

Arabako Bertsozale Elkartek Arabako bertsolariekin gozatzeko aukera berri bat eskaini nahi die zaleei udaberrian. Horretarako, egitasmo berri bat jarri du martxan: *Arabako bertsolariak oholtzapetik, entzulea epaile*.

Arabako 16 bertsolarik hartuko dute parte, lau saiotan banatuta. Oholtzarik gabeko aretoetan jokatu dira lau saioak, lau herritan.

Publikoak epaitutakoaren arabera, finalerako sailkatuko da saio bakoitzeko bozkatuena. Beraz, finalean, oholtza gainean, 4 bertsolarik kantatuko dute. Finalean ez da epailerik egongo, eta ez da irabazlerik izendatuko.

Apirilaren 8an jarri zen martxan ekimena Ozaetan eta finala maiatzaren 13an jokatu da Legutian. Ekimenaren inguruko informazio osoa www.bertsozale.eus webgunean aurkituko duzue.



Kalean dira Gipuzkoako Bertsolari Txapelketako liburu eta diskoa

Gipuzkoako Bertsolari Txapelketari buruzko argitalpenak bertan parte hartu zuten bertsolari guztien bertsoak bildu ditu eta finala oso-osorik aurki daiteke. Liburuan agertzen diren bertso guztiak audio formatuan ere aurki daitezke.

Txapelketan zehar erabili diren doinuen azterketa, identifikazioa eta sailkapena egin dute Joanito Dorronsorok eta Martin Aramendik. Bi doinu berri identifikatu dituzte txapelketan, eta jadanik Xenpelar Dokumentazio Zentroaren baitako doinutegian, BDBn, txertatu dira; horien berri badakar liburuak, pentagrama eta guzti. Bestetik, liburuan agertzen diren argazkiak Alberto Elosegik ateratakoak dira.

Gipuzkoako Bertsolari Txapelketako liburua eta CDa 20 euroan eskura daiteke www.lanku.eus atarian zein Gipuzkoako Bertsozale Elkartean. Bertsozale Elkarteko bazkideek 15 euroan eskura ditzakezue bi produktuak. Liburua etxera bidaltzea nahi izanez gero, 6 euroko bidalketa gastuak ordaindu behar dira.



Lankun eta Gipuzkoako Bertsozale Elkartean dago eskuragai.//XDZ

Amaitu da Hitzetik Hortzeraren denboraldia

Apirilaren 3an emititu zen denboraldi honetako azken Hitzetik Hortzera baina, bertsolarien jardunak etenik izango ez duenez, Bertsozale Elkarteko erredakzio-taldeak lanean jarraituko du saioen bilketan eta horien hedapenean.

Hitzetik Hortzerak bere denboraldia amaitu arren, sareko plazan izango da bertsolarien jarduna jarraitzeko aukera.

Urte osoan bezala, www.bertsoa.eusen ikusi ahal izango dituzue udaberriko eta udako saioetako bertsoaldi onenak eta bertsolaritzaren bueltan sortzen den informazioa ere bertan izango duzue.

Horrez gain, ohi bezala, hedabide ugari eskainiko diegu gure zerbitzua. Azken hilabeteetan bi berrikuntza nagusi izan ditugu: alde batetik, Hamaika Telebistarekin sinatutako hitzarmenari esker *Bat-Batean* telebista-saioa ikusgai duzue larunbatero 15:00etan. Bestetik, Tolosaldeko Atariak ere bere bertso-programa du irratian Harituz bertsozale taldearen eta Bertsozale Elkartean arteko lankidetzari esker.

Horiez gain, lehendik ere Bertsozale Elkartean hainbat hedabiderek dituzte hitzarmenak: Euskadi Irratiarekin, Radio Vitoriarekin, Xorroxin irratiarekin eta Hala Bedi irratiarekin.

Europa bat-batean hedapena

Horrekin batera, jarraipen berezia egingo dio erredakzio-taldeak *Europa bat-batean*. Apirilaren 16tik 23ra eguneguneko

bertsoak, elkarrizketak eta eduki bereziak eskainiko dituzte www.bertsoa.eus atarian eta apirilaren 30erako telebista-saio berezi bat prestatuko dute ETB1 katean emititzeko.

Bide batez, erredakzio-taldeak eskertu nahi du bertsolariek, bertsozaleek, bertso-eskolek eta antolatzaileek emandako laguntza, denon artean bertsogintzaren hedapen gero eta zabalagoa egiten dutelako.



Datozen hilabeteetan ere saioz saio ibiliko da erredakzio taldea.//XDZ



Puntu jarrita

BEÑAT IGUARAN AMONDARAIN

BERTSOZALIA

Idatziz espresatzia ez omendo zure indargunian artian, Eli; espresatzen artista dan bati pasayozu txanda, ordia.

Nere bertsoetako euskalkiyai buruz galdetu diazunez, euskalki hontan idazteko tentazyuai ezin izan diyot eutsi.

Bertsotan erabiltze dean hizkuntza erregistrua ezte uste aukeratuba izan danik. Etxetik jasotako hizkuntzan in izan det bertsoan, egiya esan, euskera batun zeatik eztean itten inoiz pentsatzen jarri gabe. Azken urtiontan, ordia, buelta batzuk eman dizkiyot gai honi eta hainbat arrazoyen artian, gustoko dittuan bertsolari asko, bertsoan beren euskalkin aitzen diala kontuatu naiz.

Beste galderetako bat, esan nahi deanan arabera edo naon kontextuban arabera hizkera aldatze ote dean zan. Alde hortatik, koherentziya mantentzen sayatzen naiz ta nere moldiai eusten. Nere euskalkiya dala ta, entzuliangana irixteko zailtasunak dittuala sumatuko banu, zer pentsatuba izango nuke, baino dakiala behintzat, oain artian etzait holakoik pasa. Gainea, oain hainbeste bertsolari "gazte" gauden hontan, geyenguan bidia da euskera batun aitzia, eta molde hortatik kanpo, beste bide batzuk hautatzia bereizgarri izan datteke netzat.

Hala're, txapelketa pasatu berri dan hontan, nere buruba nahi baino geyotan entzun det euskera batun ta nere euskalkiyen arteko nahasketan dantzan, seuruna ezinan edo urduritasunan ondoriyoz. Hortaz, bixtakua da, ideyak argi izanatik azken finian norbea ahal dun ondona itten sayatzen dala behin plazaratzen danian.

Gauza askotan adittuba (h/ arittuba) danez ta hezkuntza arautun bertsolarietza zabaltzeko taldian lan itteunez, Mikel Artolai luzatu nahi diyot gogoeta. Zein dek hire iritziya bakoitzak bere hizkuntza erregistruan kantatziai (ez idaztziai) buruz? Gaur eungo umiak nola kantatzeye? Etorkizunian danok batun hitzeingo aldiu?

Koplak

Bertsulari Ttiki Eguna, Larresoron

Apirilaren 29an ospatuko da aurtengo lehen Bertsulari Ttiki Eguna Larresoron, Seaskako haurrekin eta Amets Arzallus eta Battitt Crouspeyre bertsolariak izanen dira kantatzen; horiekien batera Maddalen Arzallus izango da, gitarrarekin lagunduz. Maiatzean beste bi Bertsulari Ttiki antolatuko ditu Bertsolarien Lagunak elkarteak.

Poto-Finixa



Paperak galtzeko zorian

Xenpelar Dokumentazio Zentroa

Kuotaren kobraketa bazkideei

Urtero bezala, maiatzarekin batera urteroko kuota kobratuko zaizue Bertsozale Elkarteko bazkideei. Kuotaren zenbatekoa ez da aldatu, 50 eurokoa izango da norbanakoen kasuan eta 100 eurokoa, berriz, elkarteenean. Beste behin ere mila esker Bertsozale Elkartearen sostengu nagusia izateagatik.

Kontratazioak eta informazio gehiago:

Lanku
www.lanku.com
943 26 07 55

Tablo Seta eta Tamaritso Jibartoy

ISTORIO TRUKEA(n)

KAPUIA NABATZINTZILIK

KONTU ETA KANTU

FERNANDO ALBERTO

PUBLIZITATEA